

Galtzaundi

Tolosaldeko Herri Aldizkaria

12/5/4 | 363

- Joseba Mitxelena eta Aritz Larreta Bereziartua
- Kontseiluak antolatutako mintegia hilaren 22an
- Hernaldetik Larraulera Alkizatik barrena
- Olatu Talka Tolosara iritsi da



Nafarroa
1512-2012

- Aiert Beobide eta Eli Nosellasekin solasean


ORIXETOLOSA
Bigarren Hezkuntza Institutua
Institutio de Educación Secundaria

**MUNDU ZABALERAKO
ZUBIA**



943 65 13 87
E-mail: 012900aa@hezkuntza.net www.orixa.net

Batxilergoak
Zientziak eta Teknologia
Giza eta Giza Zientziak
Irakasgaien
Eskaintza Zabalena



Aurrematrikula: Maiatzaren 2tik 11ra

Aurten noraino?

Tolosaldean, gero eta gehiago gara deklarazioa euskaraz egiten dugunak. Eskualdean, 3.200 izan ginen duela hiru urte eta laz 4.546. Azken urtean, herri guztietan gora egin du kopuruak.

EGIZU DEKLARAZIOA EUSKARAZ!

SUPER EKO

SUPERMERKATUA

Oinezkoen eremua
Erosketak etxera eramateko zerbitzua

Lagun Aro-ren partidarako,
VIP gunean, 2 sarrera bikoitza zozketatzen dira.

Zumalakarregi, 4
943 65 09 01
Tolosa

Hilabeterako ukipen lenteak DOAN

Aldatu zure look-a!

Ukipen Lenteen Pack baten erosketan egiteko beharrezkoa da. Kontsulta itzazu argikari, karguaren eskuaren.

San Frantzisko, 23 • Tel. 943 69 84 70 • TOLOSA

MULTIÓPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan



Argitaratzailea: Galtzaundi Euskara Taldea.
Helbidea: Nafarroa etorbidea, 6-behea. 20400 Tolosa (Gipuzkoa)
Telefonoa: 943 655 004
Faxa: 943 654 983
e-posta: erredakzioa@galtzaundi.com
Webgunea: www.galtzaundi.com
Koordinazioa: Naiara Roldán de Aránguiz.
Erredakzio taldea: Felix Aiestaran, Igor Mujika

Kolaboratzaileak: Joseba Antxustegiarte, Txomin Garmendia, Garbiñe Biurrun, J. Agustin Arrieta, Antton Izagirre, Manex Izagirre, Ibon Artola, Unai Igartua, May Gorostiaga, Artubi elkarte, Bilgune Feminista, Amaia Etxetxipia, Ione Gorostazu, Josu Iztueta, Txarli Gesteira

Publizitatea: Amaia Doyague
Banatzaileak: Olatz Garmendia Juankar Arregi
Zuzentzailea: Nora Olano
Maketazioa: Galtzaundi
Diseinua: Zigor Agirrezabala
Azala: Aranzadi
Inprimategia: Antza.
Tirada: 5.000 ale
Lege gordailua: SS-906/91
Frankeo Itundua: 37/94

GALTAUNDI aldizkaria doan banatzen da Tolosaldeko 23 herri hauetako denda eta tabernetan: Abaltzisketa, Albiztur, Alegia, Alkiza, Alto, Amezketta, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernalde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orea, Tolosa.

Galtzaundik ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzukizunik.

TOLOSAKO UDALA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntz Politikarako Saiburuordetza
diruz lagundutako argitalpena



Argazkia: Aranzadi

Erreportaia: Nafarroa 1512-2012

"1512-2012 Nafar estatua gogoan" izendaturiko jardunaldiak ospatuko dituzte tolosarrek maiatza hilean zehar. Ospakizun egun handia maiatzaren 26koa, larunbata, izango da. Datozen larrietan 500. urteurrenaren zergatia eta jardunaldien egitarauaren berri jasotzen da. Honetaz gain, Juanxo Agirre Mauleon, tolosaldeko beste bost parte hartzaileekin batera, Amaiur Gazteluko indusketen garrantziaz mintzatuko da.

8-13. orrialdeak

Ibarrako Alurr Dantza Taldeak "Izanak dirau, 1512" ikuskizuna estreinatu berri duela Eli Nosellas eta Aiert Beobide, dantza taldeko koordinatzailea eta obraren zuzendaria el-karrizketatu nahi izan ditu Galtzaundik. "Izanak dirau, 1512" ikuskizuna eta Alurr Dantza Taldearen ibilbidea eta etorkizuna izan ditugu mintzagai.

Elkarrizketa: Aiert Beobide eta Eli Nosellas 14-16 orrialdeak

	Iritziaren leihoa: Joseba Mitxelena eta Aritz Larreta Bereziartua	4-5
	Normalizazioa: Kontseiluak antolatutako mintegia hilaren 22an	6-7
	Bidean: Hernaldetik Larraulera Alkizatik barrena	17
	Olatu Talka Tolosara iritsi da	18-19

Gizon ile-txuridunaren historia



Joseba Mitxelena

Ile txuridun gizon on bati entzun nion historia begitan zeuzkan malkoak eta bihotz barruan zauria. Hegazkin askok hartua zuten Bizkaiko Gernika herria. Beldurra genun haundia giroa oso nahasia (bis.) Gernikan ginan soldadu danak galduta genun irria, ziur nengoen lurralde hartan galduko nula bizia. (bis)

Sirenen hotsa oraindik daukat gordeta oroimenean zerutik ziran bonbak erortzen, ta lehertzen gure artean. Emakumeak negar batean beren haurrak besoetan. Sua toki guztietan hainbat hildako kaleetan (bis.) Beldurrak jota han hasi nintzan Gernikatik ihesian, bizitzan ondo jarraitu arren bihotz puxka bat hil zan (bis.)

Doinua: Anjel Mari Peñagarikano
Oiartzunen 75 urte beranduago...



Joxe Ibarguen aitonari bereziki zuzendua eta orokorrean pasarte bizi izan zuten guztiei.

Kontzientziatuta gatoz!

Lehen saio honetan, kontzientzia euskaltzaleaz idatzi nahi nuke, herri euskaldunetako hiztunen kontzientzia euskaltzaleaz, hain justu. Oro har, euskaldun guztiok landu beharreko alderdia iruditzen zait; izan ere, Euskal Herri osoa kontuan hartuta, gaur-gaurkoz, tamalez, euskaraz bizitzea, giroaren kontra joatea da eta, beraz, giro horren kontra joateko, euskaldunoi ezinbestekoa zaigu euskaraz bizitzearen aldeko jarrera aktiboa izatea.

Esan bezala, bateko eta besteko euskaldunok landu beharreko kontua da kontzientziarena, baina aurreratu dizuedanez, gaurko honetan, herri euskaldunetako hiztun aritu nahi nuke: "Zer nolako kontzientzia euskaltzalea dugu herri euskaldunetako hiztunok?". Hortxe hausnarketarako galdera.

Tolosaldeari dagokionez, esan behar da, eskualdeko herririk gehienetan, oraindik behintzat, aparteko kontzientziarik gabe ere posible dugula euskaraz bizitzea, herri horiek, berez, izatez direlako euskaldunak. Baina-eta zer gertatzen da geure herrian euskaraz bizi garenok Tolosara-edo gatozenez, alegia, erdararen aldeko giro handiagoa dagoen herrien batera gatozenez? Eta zer gertatzen da herrira euskararik ez dakien jendea datorrenean? Horiekiko zein hizkuntz portatera hartzen ditugu herria ehuneko ehuneko euskara hutsean bizi garenok?

Nire irudipena da, oro har,



Aritz Larreta Bereziartua
Irakaslea

Galtzaundiko lagunek hala eskatuta, hemendik aurrera, euskara edota hezkuntzaren inguruko hausnarketekin etorriko natzaizue. Asmoa, hauxe: bi gai horien bueltan sortzen zaizkidan burutazioak zuekin partekatu, eta zer pentsatua ematea. Asmatu, ez dakit asmatuko dugun, baina ahaleginduko gara behintzat.

herri euskaldunetako hiztunok hain euskaldunak ez diren edo oso erdaldunak diren herrieta-koek baino kontzientzia euskaltzale txikiagoa dugula. Neurri batean, ulertzekoa ere bada; izan ere, herrian bertan erabat euskaraz bizi garenok, euskaraz bizitzeko zailtasun, oztopo, madarikaziorik... pasa beharrik izan ez dugunok, kontzientzia izateko zer arrazoi dugu? Bada, herrian bertan gabiltzan bitartean eta giroa euskararen aldekoa den bitartean behintzat, gutxi. Egoera edo baldintza horiek aldatu ahala hasten da kontzientziaren arra erretzen, alegia, herritik atera eta konturatzaren zarenan, beste leku batzuetan euskaraz bizitzeko aukera kontzientzia egin beharra dagoela. Hain zuzen ere, horixe

bera da niri gertatu zitzaidana.

Ez dizuet esan, baina ni, izatez, amezketarra naiz; oso euskalduna den herri batekoa, beraz. Bada, aitortu behar dizuet, ikasketak direla-eta herritik atera arte, nik neuk ere apenas nuela kontzientzia euskaltzalerik. Hortaz, herri euskaldunetik atera behar euskaraz bizitzearen aldeko kontzientzia hartzen hasteko. Paradoxikoa, ezta?

Bukatzeo, aukera hau aprobetxatu nahi nuke eskerrak emateko. Eskerrak kontzientzia euskaltzalea sortze eta garatze bidean bidelagun izan zaituztedan guztioi: Joxepa, Lurdes, Josune, Xabi, Emeterio, Itziar, Helena, Txipi, Irati, Aitzol, Rosa, Rikardo, Idoia, Jokin eta beste hainbat eta hainbat.

Euskalgintzaren trinkotzea helburu, Kontseiluak antolatutako mintegia hilaren 22an

Maiatzaren 22an, 18:30ean, Tolosako kultur etxean Tolosaldeko eta Goierriko euskaltzaleak elkartuko dituen mintegia egingo da Kontseiluak antolatuta. Kontseiluak aipatu mintegiaren nondik norakoak azaldu dizkigu ondoko lerroetan.

Erredakzioa

Kontseilua, 2012rako erronkak

Kontseilua 1998an sortu zuen Euskalgintzak hiru helburu nagusirekin: Euskalgintzaren kohesio gune izatea, normalizazioari ikuspegi estrategikoz erantzutea eta euskaraz bizitzeko baldintza politiko eta sozial egokiak sortzeko eragite lana egiteko. 10 urtez euskararen aldeotasuna sustatzeko jardun oparoa landu izan du "Bai euskarari" lema baino euskararen aldeko jarraitzaileak sustatuz. 12 urte pasa ostean, 2010ean aldeotasunetik haragoko jarduna euskara normalizatzeko ezinbestekoa dela argi ikusita, bide berri bat urratzeari ekin zaio. Historiak erakutsi digu herri honetan euskarak dituen lorpenak herri mobilizazioak bultzatuak izan direla. Alegia, artikulazio sozialak eragin du administrazioek euskararen normalizazioaren emandako pausoak ematea. Hainbat adibide dago zentzu

honetan, D ereduarena da horietako bat: norbanako ausart batzuek ekindako bidea mugimendu bilakatu zen, eskaera sozial handi bat egon zen hezkuntza euskaraz eskaintzari begira eta azkenik administrazioak neurriak hartu zituen. Halako adibideak anitzak dira. Bada, bide honi jarraituz pauso berriak ematen ari da Euskalgintza: euskaraz bizitzeko deia hedatzea da helburua eta horri begira jarrera aktiboak hartzea.

Tolosaldea. Tolosa.

Tolosaldea 28 udalerriz osatutako eskualde zabala da, eta beraien artean desberdintasunak daude. Hizkuntzaren irizpidea aintzat hartzen badugu bi eratako udalerririk berezirik genituzke. Alde batetik, euskararen egoera normalizatuagoa duten arnasguneak, nagusiki 5.000 biztanletik behera dituzten udalerririk. Bestetik, herri-buruak.



Lehenengoetan euskararen ezagutza altua da, herri eskaldunak dira, eta horrenbestez euskararen erabilera ere alor gehienetara zabaldua dago. Herrian bertan nagusiki euskaraz bizi diren herriak direla esango genuke. Herri hauek, hizkuntzaren normalizazio prozesuan funtsezkoak dira. Alde batetik, babes neurriak behar dituzte bizi duten egoerari eusteko, eta bestetik oraindik euskara nagusi ez den esparruak irabazteko inizatiba hartu beharra dute. Herri hauek dena maiz euskara normalizatua, dena eginda dagoen sentimendua hedatua da eta jarrera erosoak hartzen dira. "Hemen dena euskaraz egiten dugu ta!".

Ordea, irabazteko esparru anitz dago. Urrunago joan gabe, inguruko herriburuetan eragitea arnasgune hauetako kidegoari ere badagokiola aintzat hartu beharrezkoa da. Arnasguneetako herriarrek sarridan jotzen dute herriburuetan lan eta zerbitzuengatik. Horietan aldaketak eman daitezten eragile aktiboak izateko ardura dute, trazio lan hori garrantzitsua da oso: bai instituzioek (herrian bertan eta herriaz gaindiko mankomunitate eta abarretan hizkuntza-politika egokia inplementatzea (jasotzen ditugun zerbitzuetan eraginez: lan munduan, merkataritzan, kirol-kultur jardueretan, bestelako zerbitzuetan...).

Bestetik herriburuak ditugu, 5.000 biztanletik gorako udalerririk. Horietan nagusienetako bat Tolosa, eskualdeko udalerririk handiena eta eskualde mailako zerbitzu gehienak zentralizatzen dituen. Tolosarren artean euskararen ezagutza handia bada ere, inguruko herriekin alderatuz euskarak ez du horren jardun normalizaturik. Eskualdeko herriburu nagusia izanik bertan zerbitzu ugari eskaintzen dira bertako zein inguruko herritarrentzat, eta zentzu horretan erantzukizunez jokatu behar du Tolosako Udalak normalizaziorako neurri eraginkorrak inplementatuz esparru eta alor guztietan. Zer esanik ez, tolosarrek ere eragite aktiboa beren esku dute euskarazko jardunaren bidea hartuz.

Gauzak horrela, Tolosaldeko normalizazio prozesua ezin uler daiteke herriko administrazioen ardurapekoa. Modu uztartuan landu

beharko dira plano politiko eta soziala alde batetik, eta bestetik arnasguneen hedapen geografiko eta funtzionalerako eskualde mailako ikuspegia.

Mintegiak. Nola izango diren. Zertarako.

Esan bezala, Kontseilua erakundearen erakundea den neurrian, bere jardunbide nagusienetako bat hauen kohesioa bultzatzea eta indarrak artikulatzea da, eta zentzu horretan ezinbestekoa da ideologizazio eta formazio lanari ekitea. Mintegi hauek funtzio hori betetzeko antolatuta daude, hau da, euskalgintzaren trinkotzea eta hauen artikulazioa bilatzen dute. Urtero eskaintzen ditugun mintegietan gai teo-

rikoak eta praktikoak lantzen ditugu. Eduki teorikoetan hizkuntzaren berreskurapen prozesurako beharrezkoak diren oinarriko kontzeptuak eta estrategiak azaltzen ditugu eta atal praktikoan, berriz, herrietan lana egiteko ekintza ereduak eta dinamika eraginkorrak aztertzen ditugu ariketa desberdinen bitartez.

Mintegi hauek Euskal Herri osora zabaldua daude, Gipuzkoan hiru aurrekusi ditugu (Donostialdea, Debagoiena, Tolosaldea). Tolosaldeko eta Goierriko euskalgintzari bereziki eskaini nahi diogun mintegia da Tolosakoa eta datorren maiatzaren 22an egingo dugu. Dena den, interesa azaltzen duen edonorentzako ere atea irekita egongo dira.



Baserriko produktu naturalak
Mahala baserria • LEABURU
Tel.: 943 673 499



Osagaiak
Desarrolloak
Instalakuntzak
GUDARI KALEA 15-BHEHA TEL.: 943 650 199
TOLOSA (GIPUZKOA) FAXA: 943 653 916



INDUSTRIARAKO
HORNIDURAK
Iparragirre auzoa, 1-behea
20400 Tolosa
Tel.: 943 673 726 • Faxa: 943 673 462



ESKULANAK
Nafarroa etorbidea, 10
TOLOSA
Tel.: 943 655 577



Arostegieta kalea, 2 - Tolosa

enpresa katalogoak

aldizkariak
logotipoak

liburuak

publizitate komertziala
kartelak

egutegiak
bannerrak

antza
komunikazio grafikoa

Zirkuitu Ibilbidea, 2 / 2. pabiloia · 20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
Tel.: 943 370 738 / Faxa: 943 372 226 · info@antza.com · www.antza.com

Nafarroa 1512-2012

“1512-2012 Nafar estatua gogoan” izendaturiko jardunaldiak ospatuko dituzte tolosarrek maiatza hilean zehar. Ospakizun egun handia maiatzaren 26koa, larunbata, izango da. Datozen larroetan 500. urteurrenaren zergatia eta jardunaldien egitarauaren berri jasotzen da. Honetaz gain, Juantxo Agirre Mauleon, tolosaldeko beste bost parte hartzaileekin batera, Amaiur Gazteluko indusketen garrantziaz mintzatuko da.

Erredakzioa

1512ko konkistaren urtemuga ospatuko da datorren maiatzean. “1512-2012 Nafar estatua gogoan” jardunaldietako antolatzaileek ospakizunaren helburuaren berri eman dute: “gertaera historiko hori aldarrikatzearen helburua ez da konkista ospatzea, ezta konkistaren apologia egitea ere, Nafarroako Estatuaren

lehena eta orainaren arteko loturak agerian jartzea baizik eta bide horretatik, neurri batean gaur egungo egoeraren jatorria ezagutzea”. Orduko euskarak zuen erreferentzia handia eta Nafarroa Erresumaren independentzia auzerara galdua ere gogora ekarriko dira.

Horretarako, hitzaldiak,

erakusketak, irteerak eta maiatzaren 26an ospatuko den ekitaldiz beteriko eguna borobildu dira (egitarau osoa ikusgai kontrazalean). Jardunaldien antolatzaile lanetan hainbat eta hainbat erakundek eta eragile sozialek parte hartu dute. Horien adibide dira Tolosako Udala, Albiztuko Udala, Baztango Udala, Amaiur Gaztelua Elkartea, Lizardi Kultur Elkartea, Urkizu Elkartea, Andia Elkartea, Uda-berri Dantza Taldea eta Oargi Elkartea.

Tolosa historialari eta aditu ezberdinen kokagune bilakatuko da maiatzean “Nafar estatua gogoan” jardunaldiak medio. Jose Mari Esparzak “Herri baterako mapak” erakusketaren berri emango du; Xosé Estevez eta Jose

Luis Orella Unzue Nafarroak Gaztela eta elizarekin zuen harremanez mintzatuko dira; Peio Monteanok Nafarroaren Gudaren berri emango du eta Floren Aoizek, Bixente Serrano Izkok eta Joseba Asironek Nafarroa konkistaren aitaziaz geroari buruzko gogoeta aurkeztuko dute mahai inguru formatuan.

Maiatzak 26, larunbata

Nafarroak eta Tolosak lotura handiak izan dituzte iraganen ere. Harreman horren testigu Tolosako Nafarroa etorbidea da, maiatzaren 26ko ospakizunaren kokaleku nagusia. Aipatu egunean, eguerdiko 12.00etan Nafarroa etorbideko haur parkeari “Amaiur parkea” izena jarriko zaio eta monumentu baten

inaugurazioa medio omenaldia egingo zaie Nafarroako Erresuma defendatu zutenei. Ezarri beharreko oroigarria Amaiur gaztelua eraiki zeneko harriarekin eginda dago, bailara arteko harremanak islatuz. Amaiurri erreferentzia egiten dion sinbolo gehiago ere izango dira aipatu oroigarriak: Amaiurren aurkitutako brontze ezpataren erreplika ezarriko dute eta.

Amaiur parkearen izen ezarpenaren ekitaldiaren aurretik eta ondoren bestelako ekimen ugari ospatuko dira egun osoan zehar. Aurretik, goizeko 09.00etan hasita gaiteroen dianak entzungo dira Tolosako auzoetan, gaiteroen doinuak 10.00etan alde



zaharrera iritsiko dira, ondoren Musika Bandari 11.00etan testigua pasaz. Erakunde-ekitaldia 11.30ean ospatuko da



Mikel Errazkin
Anoeta. Gizarte antropolo-
goa eta Aranzadiko kidea

Nolako esperientzia izan da Amaiurreko Indusketetan parte hartzea? Zenbat denboraz aritu zara?

Esperientzia oso ona izaten ari da. Batetik maila teknikoan eta bestetik maila pertsonalean. Maila teknikoan, gizarte antropologo bezala, memoria historikoa aztertzea da nire helburua. Hau da, batez ere memoria historikoaren atzetik gizarteak bere iraganeko hainbat gertakari edo ezinbesteko dituen sinboloak nola sortzen dituen, nola transmititzen dituen, guzti horrek gizartearen osaketan, gizartearen identitatean zer nolako funtzioa duen aztertu daiteke. Hori dela eta, Amaiur Gernikarekin batera Euskal Herriko historian sinbolo garrantzitsua da. Amaiurren parte hartzea beraz, izugarria da.


Indusketa bera oso esker oneko aztarnategia da, aztarna asko azaltzen direlako. Bai gaztelua beraren perimetroa -harrisia eta hormak- eta baita garai horretako egunerokotasuna irudikatzen dutenak ere -jatekoa, armak, eraikuntzaren egur zatiak, putzu zuloa, txanponak-. Oso esker oneko gunea da.

2006an hasi genuen, aurten zazpigarren kanpaina egingo dugu eta hasieratik bertan izan naiz. Maila pertsonalean, herri-

tarrekin *feeling* berezi bat lortu dugu. Juantxo Agirre Mauleonek oso ondo adierazten du: "harrien bila joan ginen eta herri bat topatu genuen". Ateratzen diren aztarnak sozializatzen saiatu gara eta herritarrekin harreman berezia sortu dugu. Indusketa taldean ere oso giro berezia sortu da. 2006az geroztik, indusketa talde sendo bat eratu da. Urtero, indusketetan parte hartzeko 15 egun gordezten ahalegintzen gara.

Zer nolako eragina izan du zuen lanak Amaiur herria eta herritarrengan?

Herria txikia da, 250 bat biztanle ditu eta bat-batean 15 egunez, indusketa taldea herrian izatea inpaktua ere bada. Bestalde, eurekin ekintzak eta hitzaldiak antolatzen saiatzen gara. Ez da ahaztu behar gainera, prozesua bera herriak abiatu zuela, herriko alkateak eskaera luzatu zuen ikerketak hasteko. Hori dela eta, ezinbestekoa da gure ikerketa lerroak ematen dituen emaitzak beraiengan itzultzea. Prozesu guztian herria presente dago, eta ezinbestekoa da.



Juantxo Agirre Mauleon
Amaiurreko indusketetako zuzendaria. Aranzadiko idazkari nagusia

Zerk bultzatu zintuen Amaiurreko indusketetan parte hartzea?

Jesus Elozegi, tolosarraren bideari jarraitzen diot; Aranzadiko kide eta tolosar bezala funtzio berdina aurrera eramaten dut.

Duela 8 urte eskutitz bat jaso genuen Amaiur herritik, Pirinioetan ezkatuta dagoen herri txiki horretatik. Eskutitz horretan, Amaiurreko mendi azpian zer ote zegoen jakiteko eskaera luzatzen ziguten. Eskaera horretatik abiatuta segituan murgildu nintzen arkeologia auzolan honetan.

Honetaz gainera, betidanik izan dut Nafarroarekiko sentimendu bat. Aiton-amonak Abarzuzatik, duela 90 urte lan bila abiatu ziren eta nire bi abizenek gunearrekin harremana dute gainera.

Iniziatiba, bertako herritarrena izan zen. Gu tresna bat gara, gogoz aritzen gara, ohore bat da bertan lanean aritzea. Izan ere, Euskal Herriko ikur garrantzitsua da Amaiur.



Asier Izagirre
Alpinista eta Aranzadiko kidea

Nolako esperientzia izan da Amaiurreko Indusketetan parte hartzea? Zenbat denboraz aritu zara?

Oso interesgarria eta betegarria izan da. Gehien bat prozesua ikusi dugulako; hasieran menditontor bat eta ezarritako mono-

litoa baino ez zeuden eta urteak pasa ahala gaztelua azaltzen ikustea oso esperientzia betegarria da. Lan egin eta gero emaitzak ikustea pozgarria da. 5 urtez aritu naiz Amaiurren; hasierako fasetik, garbitzen eta katak egiten ibiltzetik bost urte pasa dira.

Mendietan gora eta beheara ikusi ohi zaitugu, zortzi milakoetan, oraingo honetan lur azpian ibili zara lanean. Antzekotasunik ba al du alpinismoak eta Amaiurreko auzolanean parte hartzeak?

Zeharo ezberdina da. Alpinismoa-mendia eta indusketa-arkeologia erabat ezberdinak dira. Antzekotasunik topatu behar izatekotan, "historia egiten aritzean" topatuko nuke. Edurne Pasaban lagundu izaten dut bere espedizioetan, Edurnek historia egin du alpinismoan emakume euskaldun bezala. Bestetik, Amaiurren nobabait historia aztertzen dugu eta ni lan-talde horren partaide naiz. Langile profesional bezala joaten naiz baina %80a lan boluntarioa izaten da. Bertan elkartzen garenok Euskal Herria maite dugu eta historia aztertzeko aritzen gara.



Unai Iraola
Alegiako alkatea

Nolako esperientzia izan da Amaiurreko Indusketetan parte hartzea? Zenbat denboraz aritu zara?

Esperientzia oso positiboa. Betidanik gustatu izan zait arkeologia eta Amaiurreko gaia. Aukera zegoela jakitun izan nintzenez gogo handiz joan nintzen. Egia esan espero nuena baino askoz hobea izan zen esperientzia. Taldean oso giro ona dago eta arkeologia esperientzia bezala ere oso interesgarria suertatu da. 3 urtetan joan naiz. Lehenengo urtean bisita pare bat egin nintuen eta ondorengoetan kanpaina osoan aritu nintzen.

Orain Alegiko alkatetzan zabiltzala, aukerarik izango al duzu horrelako ekimenetan parte hartzeko? Udalgintzak herritik kanpo lanean jarduteko aukerarik eskaintzen al du?

Nik uste beharra izango dudala bertara joan eta deskonektatzeko, bestelako lan batzuetan ibiltzeko. Ardura handiak hartu ditut alkatetzan jarriz geroztik, baina Amaiurreko kanpaina abuztuan izaten da eta udal gehienek, erakunde publiko asko bezala, ez dute beste garai batzuetako lan karga. Hori dela eta, berriz ere bisitaren bat egiteko moduan izango naiz.



Irati Zaldua
Historian lizentziatua

Nolako esperientzia izan da Amaiurreko Indusketetan parte hartzea? Zenbat denboraz aritu zara?

Udara batez aritu nintzen Amaiurren. Arkitekturako fakultatearekin auzo-landegi batzuen bitartez parte hartu nuen Amaiurren. Beste indusketa batzuetan ere parte hartu izan dut boluntario bezala. Jendea behar izaten dute eta gustura parte hartu izaten dut tankerako ekimenetan.

Historia ikasi zenuen, arkeologia maite duzu... Ba al dago aukerarik historiari, arkeologiatik bizitzeko?

Arkeologiatik bizitzea oso zaila da. Horregatik, arkeologiar buruz eskaini didaten guztia lan-boluntarioa izan da. Zaila da. Suertea izan behar duzu.



Antton Olalde
Tolosako jubilatua

Nolako esperientzia izan da Amaiurreko Indusketetan parte hartzea? Zenbat denboraz aritu zara?

Kuriositateak eta jakin-nahiak eraman ninduen Amaiurreko indusketetan parte hartzera. 5 urtez bertan aritu naiz. Hasieran egun bateko bitaldia egin nuen, ondoren 2, jarrian 8 eta azken urtean 15 egunez egon naiz. Izan ere, aurre-jubilaturik nagoenez denbora arazorik ez dut izan.

Gazteluen gaiak beti erakarri izan nau. Juantxo Agirre Mauleonen bitartez informazioa eskuratu nuen eta bisitan joan nintzen. Lehenengo egunean erremintak eman eta harriak kentzen eta sasiak garbitzen aritu nintzen.

Zergatik Amaiurreraino joan behar, Tolosaldean ez al dago ondare nahikorik ikertu, aztertu eta zaindu beharrekoa?

Amaiurreko gaztelua mitikoa delako. Indusketak hasi aurretik, muino bat besterik ez zenean, gunea ezagutzen nuen. Indusketetako aukera suertatu zitzaidanean interesez heldu nion proposamenari. Bertan egiten den lana oso positiboa da, baita egin beharrekoa ere. Izan ere, oraindik egiteko lan asko dago.

Beti Alai
Garaian garaiko janariak eta arraikietan bereziak
Tel.: 943 671 920
Errementari kalea, 16 • 20400 Tolosa

IG GORRI
Paper manipulaziorako makina eraikuntza
Konponketa eta mantenimenduak
Apatta industrialdea.
Baratzondo D 26. Ibarra
Tel.: 943 671 590.
Faxa: 943 673 916

SANZ
arraindegia
Tel.: 686 98 21 74
943 65 17 85





Tolosako Udaltaldean, Tolosako Udalak Baztango Udalarari eta Amaiurko herriari harrera egiten diotenean. Amaiurko parkearen ekitaldiarekin lotzeko segizio instituzional eta herrikoia egingo da Nafarroa etorbideraino.

14.30ean herri bazkaria ospatuko da Zerkausian, Larrain dantzarekin amaituz. Eta azkenik, egunari amaiera emateko, Baztan aldeko taldeekin -Erru Gabe, Kaskezur eta Ufestuek- rock kontzertua ospatuko da Tolosako Plaza Berrian.

Azken finean, festa egunaren helburua, Juantxo Agirre Mauleonek dioenez, oroi-mena berreskuratzea, izaera aberastea eta nortasuna indartzea da.

Amaiurko gaztelua

Mendikuteko (Albiztur) gaztelura bisitaldiarekin batera egitarauetan, maiatzaren 20ean, igandean, Amaiurko (Bazan) gaztelura egin beharreko bisitaldia programaturik ageri da. Aipatu egunean, bisitaldian izena emandakoek

goizeko 08.30ean Tolosako San Frantziskoko autobus geltokitik Baztanera abiatuko dira. 10.00etan Amaiurko Gaztelu Elkartearen kafea hartuz, Juantxo Agirre Mauleonen eskutik, Aranzadiko idazkari nagusia eta Amaiur gazteluko indusketa zuzendaria, gazteluaren indusketa arkeologikoari buruzko proiektzioa izango da. Ondoren, gaztelura bisitaldi gidatua egingo da, lanak bertatik bertara ikusiz. Jarraian, Amaiurko errotako talo dastaketa eta Tolosako Mendialde jatetxeko bazkaria etorriko dira. Irteera honen prezioa 30 eurokoa da eta gainerako ekitaldietarako bezala Tolosako Kultur Etxean izena ematea beharrezkoa da.

Maiatzaren 20ean beraz, zuzenean, bertatik bertara Aranzadikoen lanaz jabetzeko aukera izango dute tolosarrak zein inguruko herritarrek. Galtzaundik, Amaiurko Gazteluko indusketa proiektuaren berri izan nahi eta Juantxo Agirre Mauleon eta udaratik udarara bertan parte hartzen duten eskualdeko beste bost langile eta boluntarioei galdetu die. Unai Iraolak, Antton Olalde, Asier Izagirrek, Irati Zalduak eta Mikel Errazkinek, euren esperientziaren berri eman dute.

Juantxo Agirre Mauleonek argi dauka, urteurrenak historia ikertzeko aitzakia baliagarriak direla, objektibotasunez duela 500 urte gertatutakoa arakatzeko bidea direla. Horren adibide da Amaiur Gazteluko Indusketa proiektua. Agirre Mauleonen hitzetan, euskaldunentzat bi toki sin-



Argazkia: Aranzadi

boliko daudela azpimarratzen du; berria Gernika eta zaharra Amaiur. Horregatik, Amaiurren lanean aritzea ohorea da Aranzadiko idazkari nagusi tolosarrarentzat. Aurretik ari-tutakoen izen mitiko ezberdinei jarraitzen die Agirre Mauleonek -Arturo Kanpion, Jose Maria Jimeno Jurio...-.

Aranzadik gidatuta duela zazpi urtetik hona, udaraz udara, Amaiur gaztelua arakatzaren aritzen da indusketa taldea. Udararo 40 bat pertsona biltzen dira Amaiurren, Euskal

Herri osotik joandako jendea izanik, asko eta asko Tolosaldean dute jatorria. Parte hartzaileak auzolanean, indusketa arkeologikoan murgiltzen dira 15 bat egunez. Guztiek arkeologia zaletasuna badute ere, Euskal Herriaren historia gertutik ezagutzeko sentsibilitatea ere badute; guneak islatzen duen sinbolikotasuna tarteko. Agirre Mauleonek Amaiurrekoa Euskal Herri osoko euskara hutsezko indusketa bakarra ere badela zehazten du. ©

ZORROZTU ZURE ETORKIZUNA



Goierri Eskolak **Ate Irekien Jardunaldira** gonbidatzen zaitu.

Ezagutu ezazu **Lanbide Heziketako** gure eskaintza.

- Erdi Mailako zikloak
- Goi Mailako zikloak
- HLPP - PCPI

Maiatzak 12, larunbata, 10:30ean.

Arranomendia, 2 • ORDIZIA • 943 880 062



www.goierrieskola.org



Zeure begiz ikus ezazu. Klik batekin informa zaituz.

Alurr Dantza Taldea eta "Izanak dirau, 1512" ikuskizuna



Ibarrako Alurr Dantza Taldeak "Izanak dirau, 1512" ikuskizuna estreinatu berri duela Eli Nosellas eta Aiert Beobide, dantza taldeko koordinatzailea eta obraren zuzendaria elkarrizketatu ditu Galtzaundik. Ikuskizuna eta dantza taldearen ibilbidea eta etorkizuna izan dituzte mintzagai.

Emanaldia "Nafar estatua gogoan" jardunaldien baitan, maiatzaren 25ean, ostiralean, 20.30ean, Tolosako Leidor Antzokian taularatuko da. Sarrerak dagoeneko eskuragai daude www.barrabarra.eu webgunean.

Naiara Roldán de Aranguiz

Aiert Beobide:
"Gustuko dudan eran lan egitea pribilegio bat da"

"Iraganik gabeko herriak etorkizunik ez" dio obraren aurkezpenak. Duela 500 urte gertatutakoa gogora ekarriko du Alurr Dantza Taldearen lanak, aiton amonen kontu eta kantez josia.

"Izanak dirau, 1512" ikuskizuna dagoeneko Lasarten eta Baigorri eskaini duzue, zer nolako erantzuna jaso duzue?

Oso gustura gaude barrutik zein kanpotik jasotako erantzunarekin. Barruko giroari dagokionez, oso sentsazio onak izan dituzte

dantzariak. Zuzendari, irakasle eta antolatzaileak ere pozik gaude. Kanpotik jasotako erantzunak oso positiboak izan dira; istorioa ulertzen dela, ikusten arina dela eta gazte dantzarien indarra nabari dela esan digute. Pozik gaude eskuratutako emaitzekin.

Oraingoan gazteenak dira taula gainean dantzan aritzen direnak.

Azken urteetan gazteei bultzada eman behar genielako pentsatzen genuen, taldea indartzeko. "Sua" eta "Oinazez" ikuskizunak prestatu ondoren, gazteei begira ikuskizun moduko emanaldia egin behar genuela erabaki genuen. Gaiak bilduz eta aztertuz



hasi ginen. Orduan Nabarralde eta Nafarroa Bizirik bitartez, Nafarroako konkistaren gaia egokia iruditu zitzaigun, 500. urteurrena zela eta. Gazteek Euskal Herriko historia ikasteko aitzakia izan dute. Erabakia hartu, gidoi ezberdinak eskuratu eta forma ematen hasi ginen.

Nolako egokitzapen lana behar da gazteenekin aritzera?

Entseguak egiterako garaian, antzoki batera ohituta ez daudela kontutan hartu behar da: jantzi aldaketak, argiztapena, publikoaren presioa... Guzti horrek oso modu zuzenean dantzariari eragiten dio. Lasaitasuna eta segurtasuna eskuratzeko denborarekin aritu gara. Haiak eskatuta ordu estrak sartu ditugu.

Dagoeneko emankizunak lotuta dituzue...

Zizurkilen maiatzaren 12an, Pasaia Donibanen maiatzaren 19an eta Tolosan maiatzaren 25ean arituko gara. Gaiak interesa piztu du eta horrek bide batzuk erraztu dizkigu. Dantza krisian dagoela esan oi da, baina gu borrokatzerarekin gaude. Imajinarioa behar da gauzak saltzeko eta gu horretan ibili behar izaten gara.

Tolosaren kasuan, "Nafar estatua gogoan" jardunaldien baitan kokatzeak ikusle gehiago erakarriko du?

Bai, hori seguru. Esparru ezberdinetara hedatzea guretzat abantaila da. Nabarraldekoek eta Nafarroa Bizirikekoek gaia jorratuz gero, zabaltzen lagunduko zutela

esan zuten. Euren interesa 500. urteurrenaren informazioa toki txiki guztietara hedatzea da.

Eszenatoki gainean dantzaz gain musikak, jantziek eta argiztapenak berebiziko garrantzia hartu izaten dute. Nolako da oraingoan?

Istoria bat kontatzerako garaian, dantza mugimendu soil batzuekin burutzea ez da erreza izaten. Musika, jantziek, argiztapenak lan horretan laguntzen dute. Oraingoan musikari dagokionez, euskal sonoritatega bilatu dugu. Ez dira dantza tradizionalen ezagutzen ditugun soinu soilak entzungo, osotasun gehiago dutenak, baizik. Gitarra, alboka, dultzaina, ttun-ttuna entzuteko aukera egongo da.

Jantzi aldetik, nafarrak, gaztelauak, erromatarrak... zirela adierazi behar izan dugu. Bilaketa lan sakon bat egon da.

Argiztapenari dagokionez, antzoki handi bat, toki ilun bat, argiztatzeko modua oso aberasgarria da. Leidorren entsegu orokorrak egin genituen. Argiztapenak asko laguntzen du momentu bakoitzean adierazi nahi duguna adierazten.

Oraingoan gainera irudiak ere sartu ditugu. Honakoa Alurrentzat berria da. Proiektaturiko irudiek ikuslea harian bideratzen lagunduko dute. Nafarroako irudiak jasotzen dira: parajeak, eraikinak, zubiak, monasterioak, gazteluak, basoak...

Zer topatuko du ikusleak Leidorreko eszenatokian?

Ikusleak gozatuko du. Historiarekin harremana duen ikuskizuna da. Emanaldiaren bitartez ikusleak indarra sentituko du, barre egingo du, tristura eta amorrua ere iritsiko zaizkio. Jendea animatu behar dugu honelako emanaldiak ikustera. Izan ere, benetan disfrutatuta eta sentitu egiten da. Zuzeneko izanik, gertutasuna eskaintzen du. Elektrizitatea sortzen da pertsonatik pertsonara.

Zer da "dantza" Aiert Beobiderentzat?

Dena. Hobby bezala hasi zen, pasio bilakatu zen eta orain nire lanbidea ere bada. Dantzarekin disfrutatzen dut eta nire ikasleei kutsatzen saiatzen naiz. Dantzak baditu momentu oso gogor batzuk; teknika eta sakrifizio asko eskatzen du baina dantzan hasi eta disfrutatzen duzunean horretaz ahaztu egiten zara. Gorputza mugimendu eske hasten zaizunean, ikusleari dantzaren bitartez zerbait sentiarazten diozunean... izugarria da, munduko politena.

Eta azkenik, zer amets duzu dantza munduan?

Ez daukat ametsik. Hobby moduan hasi, fundamentua eta seriootasuna hartu nuen eta azkenean ondoen egiten nuena dantza zela konturatu nintzen. Zergatik hasi beste lanbide bat bilatzen? Gaur

BETELU PNEUMATIKOAK TAILER MUGIKORRA

Pneumatiko aldaketa
Zulatutako gorpulen konponketa

646 474 166
info@neumaticosbetelu.es - www.neumaticosbetelu.es

jarri zure
publizitatea
Galtzaundi
aldizkarian

Nafarroa etorbidea, 6
20400 Tolosa
publizitatea@galtzaundi.com
943 655 004
www.galtzaundi.com

egun nire lana da. Pausoz pauso eskuratutakoa, lan eginez etorritakoa da. "Izanak dirau, 1512" Alurrekin prestaturiko bigarren ikuskizuna da eta honelako lan bat zuzentzea, aurkeztea eta gustuko dudana bezala egin ahal izatea pribilegio bat da. Ez daukat helburu bat, ez daukat amets bat. Ahal dudana heinean jarraitzea da nire helburua, beti ere, gustura eta lan-taldean sorkuntzan murgildurik.

Eli Nosellas:

"Nire ilusioa eskualdeko dantza eskola sortzea da"

"Izanak dirau, 1512" ikuskizuna ulertzeko ezinbestekoa da Alurr Dantza Taldearen historia ezagutzea, modurik egokiena Eli Nosellas koordinatzailea elkarrizketatzea da.

Alurr dantza taldearen hastapeniburuz mintzatuko?

1995ean erregistratu zen. Aurretik, zazpi bat urte lehenago lbarrako dantza historiaren inguruko liburua aurkeztu genuen. Herriko dantzaren historia herrian luzea da, baina ezer formala ez zegoen. Bere garaian, hainbat irakasle aritu ziren -Gastesi, Jose Luis Zubeldia...- ikastaroak eskainiz. Izugarritzko arrakasta izan zuten. Ni ere orduan hasi nintzen. Momentu horretan dantza taldea sortzea, gorpuztea egokia iruditu zitzaigun. Alurr izena aukeratu genuen. Lurra esanahia izanik, gure lurra gure sustraiekin harremana bazuela iruditu zitzaigun.

1999-2000. urteetan Alurr Dantza Taldeak beherakada handia izan zuen, belaunaldi aldaketa izan zela eta, gazteek unibertsitate alde egin zutelako. Orduan, Udalarari, bertan Eider Epelde zegoela, kultur etxearen bidez dantza tailerrak eskaintzea proposatu zitzaion.

Guraso elkarrearen bitartez dantza taldea indartzeko lana

hartu genuen. Gazte dantzariak, irakasleei deika hasi nintzen. Gazteek dantzan hasiko zirela erantzun zuten baina tradizionalera ez zirela mugatuko aitortu zidaten. Momentu horretan, gure ibilbide berriaren hasiera etorri zen. Edu Muruamendiaren dantzariaren bila joan nintzen; gure taldeko partaide izateko planteamendua luzatu eta onartu zuen. Apustu handia egin genuen, estilo eta funtzionamendu erabateko aldaketa egin genuelako. Ordura arte lana boluntarioa zen, baina momentu horretan profesionala ekarri eta ordainketak egiten hasi behar izan genuen. Matrikulak kobratzen hasi ginen, arropak eskuratzen... Eta orduan 2001-2002 ikasturtean gure lehen ikuskizuna prestatu genuen. Momentu egokia izan zen. Jendeak zerbait berria behar zuen. Gehien bat musika eta dantza aldaketa egin genuen.

Gaur egun Alurr Dantza Taldearen hedapena erabatekoa da.

Ibarran bertan 200 ume inguru daude. Baina Alurr eskualdeko hainbat eta hainbat herrietara mugitzen da dantza ikastaroak eskaintzeko. Ibarrako taldera eskualdeko haur ugari etorri ziren eta planteamendu berria egin behar izan genuen, herrian herrikoa mantentzeko. Garrantzitsua da herri bakoitzak herriko umeekin bere dantza taldea osatzea. Egun, udal ezberdinekin lan hitzarmenen bitartez ikastaroak eskaintzen ditugu eskualdean barrena. Irakasleak kontratatuz profesionalizatu egin dugu. Ibarran 19 irakasle ditugu eta Legorreta, Zaldibia, Alto, Zizurkil, Berastegi, Berrobi, Ikaztegieta, Itsasondo eta Anoetara ere joaten gara aipatu hitzarmenak medio.

Alurreko eskolaren garrantzia zenbatekoa da?

Adin batetik aurrera ikasleek gehiago eskatzen dute eta eskaini egiten zaie Alurreko eskolaren

bitartez. Eskolari dagokionez, momentu batean eskualdeko eskola bilakatzea nahiko nuke, trnasmisioko eskola homologatua, dantza mantentzea eta zabaltzea aseguratuko duena. Dantza taldeak bateratu, profesionalizatu, hortik bizitzeko aukera eskaini eta herri bakoitzean taldeak bere identitatearekin mantentzea, alegia. Nire ilusioa hori da.


Gauza asko aldatu dira sortu ginenetik eta zaila bada ere, posible izan daiteke. Dantza modu batera edo bestera mantendu behar da. Euskal Herriko bestelako errealitateak dauden bezala, dantza ere mantendu behar da, gure identitatea mantentzeko.

Eskualdean aritzeaz gain Nazioarteko Jaialdietan ere parte hartu izaten duzue. Zer nolako eragina dute tankerako ekimenek taldearen?

Gurea erakusteko eta besteenaz ikasteko balio digu. Beste kulturak ezagutzen dituzunean zurea ere gehiago estimatzen duzu edo gehiago ezagutzen saiatzen zara. Tolerantzia, elkarlana eta elkarbizitza bultzatzeko egiten dugu.

Aurten beste planteamendubat sortu dugu, kanpoko taldeak gurera ekartzea, hain zuzen ere. Ibarrako Udalak babestuta, herriko taldeekin ere lanean arituko gara. Jardunaldiak "Kultur Anintz" izenburuaren baitan kokatuko dira, ekainaren 29tik uztailaren 6ra bitartean. Eusko Jaurlaritzara aurkeztutako proiektua da eta diru-laguntzaren erantzunaren zain gaude. Horren arabera talde gehiago edo gutxiago gerturatu dira Ibarrara. Rapa Nuien (Pazko Uhartera), sahararren, bizkaitarren, kataluniarren eta Euskal Herriko iparraldeko taldeen partaidetza proposatu da.

Kontutan hartu behar da taldeak ez datozela turismo egitera. Hemengo errealitateak erakutsiko diegu eta dantza eta kulturaz arituko gara. Ibarrako herritar



Josu Iztueta Azkue
Bidaiaia

Galtzaundi aldirikako irakurle gehienok jakin badakizue non dagoen Larraul, askorentzat Tolosaldea izan daiteke baina ez dago aldirikari hau banatzen den 23 herrien artean. Larraul, azpikaldean duen Asteasu, parez pare daukan Zizurkil, Aduna, gehi Villabona-Amasa, Andoain eta Urnieta Aiurri aldirikariaren eremua dira.

Bidean Hernialdetik Larraulera Alkizatik barrena

Hemen proposatutako ibilbidean zehar, hiru muinotan dauden hiru herri bisitatuko ditugu, Hernialde, Alkiza, Larraul... gonbitea bikoitza da, apuntatu bi data hauek:

Maiatzak 13, igandea, Erniopeko zortzi herrien arteko VIII. mendi ibilaldia. Erniozaleak Kultur Elkarteak antolatzen du, bi urtez behin egiten da eta edizio bakoitzean herri batetik abiatu eta herri berean amaitzen da. Aurtengoan herri hori Larraul izango da. Bi ibilbide egiten dira. Motzak 29 km / 6 ordu inguru; luzeak 49 km / 11 ordu gutxi gorabehera. Norabidea ere aldatu egiten dute edizioz edizio, aurtengoa erlojuaren aurkako norabidean. Berri gehiago www.erniozaleak.org

Ekainak 3, igandea, Gipuzkoako eskola txikien festa handia, iaz Abaltzisketan izan zen eta aurten Larraulera, jaiak 25 urte betetzen ditugainera. Ibilaldi labur honek egun horretan kotxea Hernialden utzi eta oinez joateko ere balio du. www.eskolatxikiak.org

Hernialdeko plazan (300 m), eliz ataritik eskuinera asfaltozko bidea hartu eta harrizko gurutzetara segitu, Urdanbideluzeko Txiki eta Arreginea

baserriak pasa bezain laster poste batean, Alkiza-3 km, irakurriko dugu. Belardi arteak hasieran eta gero basoan bide zabalak mendi magaletik jarraitzen du, behearantz joera nabarmenean. Pago zahar baten aldamenen Anoeta, Alkiza eta Hernialdeko muga adierazten duen kartel laranja ondokitu pasa, pinudian sartu eta laster bistatuko ditugu Alkizako lehen baserriak. Arritzaga-Berri 1992 izena daukana da horietako bat, Sorraitz, Intxor Handi, Antxita, Kukutegi, Urkullu dira besteak. Inguruan, urte sasoi honetan, ondo zainduta sagasti batzuk loretan daude, norbaitek txukun lan egindako saila da. Ibaia zubi baten gainetik gurutzatzen da eta Anoetatik-Alkizara (GI3630) doan errepidean gaude, bazter bazteretik 500 metro asfaltotik egin beharko ditugu. Berrizatu eta "izokin" kolorez margotutako Bentzalaga baserriaraino, han bidea utzi eta eskuin aldera horretan kotxea Hernialden utzi eta oinez joateko ere balio du. www.eskolatxikiak.org

1958. urtean eraikitako pilotalekua dauka herriak (Anoetatik datorren errepidea urte berean egina

omen da, Asteasutik datorrena berriz 1951koa). Eliza handiegia egungo fededun kopuruarentzat baina eskolan ez zaizkie haur guztiak kabitzen! Askok aldatutako herria da Alkiza. Plaza duela 20 urte berritutakoa da, lau metroko hormigoio posteak 100 watioko argiak jartzeko ez zen denen gustukoa izango baina tira, handik urrutiko gabe "falcon crest" moduko etxeak ere ez dira falta.

Baserritarrak kalera eta kaletarrak herri txikietara joan diren garaiko "argazkia" nabarmena da hemen.


Hernialdetik hona ordu bete baino gutxiago behar da, Larraulera joateko (2,5 km) geratzen dira, Lete baserriaren aldamenetik bide zabala hartu erreka zuloa iritsi arte, deskantsu oneko bidea da, zabala. Zubia pasa eta Arraia errekan beste aldetik bideak gorantz egiten du, altuera irabazi ahal eskuinean, behean, bi eraiakin, errotak dira. Alkizatik ordu erdi pasatxo Larraulgo lehen baserria ikusi arte, Larraola, handik aurrera segi zeharka eta iritsi nahi genuen lekuan gaude. Larraulgo plazan (240m).

Eliza, udaletxea, eskola, parkea, museoa, frontoia... eta etxe berri asko. Larraul Gipuzkoako herri txiki-

netako bat zen, azken urteotan asko handitu da. Eskola, duela 30 urte itxi zela esan didate. Azken urteotan ume mordoak jaio denez eskola handiagoa behar eta nahi dute.

Etxera etorri eta Larrauldarra den amari (1926) non egon naizen kontatu diodanean zera esan dit: "... eskola izan bazen Larraulera, gutxi joandakoak ginen gu, oso gutxi, baserri lanetarako eguraldi txarra zenean orduan bidaltzen gintuzten eskolara"... haur asko al zineten eskolatzeko adinean? galdetu diot gero: "Umia umia ugari, ... pentsa, 14 seme alabako baserri bat bazen Larraulera eta dozena erditik gora ume ginen etxe gehienetan".

Esandakoa, Mendi martxa (13an) egitekotan azken 7 kilometroak ezagunak dituzue eta Eskola Txikien festara (3an) joaten bazarete oinez ez dago Hernialdetik hain urruti. ☺





Olatu Talka Tolosara iritsi da

Donostia 2016ko kulturgintzaz osatutako itsaso zabalak bere olatu talka Tolosaraino zabalduko du. Olatu Talka Donostiari 2016ko Europako Kultur Hiriburu izatea ahalbidetu dion kultur proiektuaren ekimenetako bat da. Aurten proiektu honen uhinak Euskal Herrian barrena hedatuko dira maiatzaren 11tik 13ra bitartean, baita Tolosan ere.

Naiara Roldán de Aranguiz

Aurtengoan hirugarren edizioa ospatuko du Olatu Talkak. Hiru urte hauetan zehar Donostiako 2016 Bulegotik energia sozial eta kulturalaren berri emateaz gain, herritarrek ere kultur energia horretaz zipriztindu dituzte. Filosofia horri DSS2016EU izena ezarri eta oraingoan balio hauek barreiatuko dituzte lurralde osoan.

Sigla, akronimo, laburdura eta neologismo ugari entzungo ditugu 2012ko Olatu Talkaren egitaraua definitzeko orduan: TRANS, EKO, GEO, LAB, KOOP, POP, NET eta DIY. Nomenklatura arrotza suertatu badaiteke ere, Donostia 2016ren helburua balio hauek gizarteratzea da.

Hau da, ekimen ezberdinek ondorengo zortzi balio hauen inguruan giltzatuko dira: TRANS, eraldatzaileak eta

ohikoarekin hausten dutenak; EKO, ekologikoak eta ekonomizientek; GEO, geopoetikoak, ohiko garapen-esparrua zabaldu eta harago doazenak; LAB, esperimentalak eta prozesuan eraikiak; KOOP, kooperatiboki, elkarlanean egiten direnak; POP, herrikoiak, kultura herrikoiarekin zerikusia dutenak; NET, sarean eginak eta DIY, zuzen eginak, *Do it yourself* filosofian oinarrituak.

Donostia eta Tolosarekin batera beste herri askok eta askok Olatu Talkaren indarrak jabetuko dira datorren maiatzaren 11, 12 eta 13an: Andoain, Orio, Astigarraga, Bilbo, Pasaia, Gasteiz, Bermeo, Arantza, Elgoibar, Irun eta Getaria, besteak beste.

Tolosarrak Olatu Talkan egile Tolosarrak Olatu Talkaz dis-

frutatzeaz gain egitarau zabal horren parte ere izango dira. Lau adibide baino ez dira ondorengoak: Sukal Talka, Igogailu-Bakarrizketak, Baratza mugikorrek inguru urbanorako eta Dantzapoterea. Gastronomía, umore-antzerkia, tradizioa eta hiri-altzarien garapena, hain zuzen ere.

Sukal Talka ekimenaren zuzendaria Roberto Ruiz da, Fronton jatetxeko sukaldeko buru. Sukaldaritzatailer honetan herritarrek errezeta zapoetsuak egiten ikasiko dute. Honetaz gain, lehengaien ekoizleek egunero egiten duten lana ezagutzeko eta bertako produktuen jatorria eta ingurunea gertutik ezagutzeko ere balio du. Ohiko sukaldaritzatailer baino askoz ere gehiago dela aurreratzen dute Donos-



tia 2016 bulegotik: "TRANS da, gaurko eta datozen belaunaldien eskura jarri nahi duelako zaharren jakinduria eta, beraz, belaunaldien arteko gurutzatzea proposatzen duelako". Honetaz gain, Roberto Ruizek 30 bat sukaldarekin batera eta Kontsumo Taldearen laguntzarekin, Tolosako Zerkausian, bertako produktuez osatutako menua prestatuko dute; bertako produktuen kalitatea eta prezio egokia nabarmenduz. Parte hartzaileek 3 euroren truke menua eskuratuko dute.

Julian Rodriguezek, Gaindizten, Tolosaldea-Goierriko Pertsona Gorren Elkarteko kidea da. Berak Olatu Talken baitan Igogailu-Bakarrizketak ikuskizuna aurkeztuko du. Bertan, urruneko herrirra batean bizi eta zibilizaziorik ezagutu ez duen pertsona gor batek hirira bizitzera joatearen egoera kontatzen da. Protagonistak bidean, autobusean, haurtzaroko lagun gor batekin topo egingo du eta elkarrekin hizketan hasiko dira hiriari eskaintzen duen bizimodu ezberdinaz. Julian Rodriguezek plazaratuko duen emankizunak pertsona gorren



eta entzuten dutenen arteko konparazio dibertigarria da, umorea oinarri duena, eta minusbaliotasunari garrantzia kendu nahi diona. Julian Rodriguezek, zeinu-lengoaien bidez jardungo da interprete baten laguntzaz. Hori dela eta, Donostia 2016 bulegoak honako ikuskizuna KOOPtzat definitu du: "Julian Rodriguez eta bere interpretearen arteko lankidetzaren bidez pertsona gorrek zein entzuten dutenek gozatu ahal izango duten lan bat sortzen delako".

Hirugarren proposamena, Udaberri Dantza Taldearen eskutik dator. Dantza taldeak, maiatzaren 12an, arratsaldean, alde zaharreko kale eta plazak hartuko ditu. Proposamena, "Dantza-poteoa" delakoa KOOP eta POPTzat definitu dute: "dantza emanaldi soil bat egin

beharrean kalera irtengo gara musikariekin eta hurbiltzen zaigun jendearekin. Zenbait dantza erraz egiten irakatsiko diegu kalean zehar, plazetan eta tabernen aurrean". Tolosa Kantarirekin batera dantzan eta kantuan arituko dira.

Azken proiektua, Box.a-ren proposamena da. "Baratza mugikorrek inguru urbanoan". Tailerra arkitektura kolektiboaren proiektuaren barnean kokatu eta CSA La Torratxako kideen ekimen batean oinarriturik dago. Alondigaren plazan, baratza mugikorrek sortuko dira, material birziklatuekin eta hiritarren parte hartzearekin.

Olatu Talkak beraz Donostiako kultur hiritartasunaren bozgorailua izateaz gain, ekimen berritzaile eta parte hartzaileak eskainiko dizkie Tolosako herritarrei.

URDAIKARIAK
Altuna
HARAKINAK
Korreo. 39 20400 TOLOSA
Tel.: 943 671 414 Gipuzkoa

gizarte
kutxa

ZABALA
DESGUAZEAK
KUDEATZAILE BAIMENDUAK
EU2/111/04
BEOTIBAR INDUSTRIALDEA. 18 - BELAUNTZA
TEL./FAXA: 943 671 790 -
MUGIKORRA: 696 593 347

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA
Foruak, 5-bis • TOLOSA
Tel.: 943 652 712

matilda
zure moda osagaian denda
Korreo Kalea, 3
Tolosa

Gozotegia Okindegia
ECEIZA
P. Gorosabel, 34 - Telf. 943 655 161 - San Francisco, 8 - Telf. 943 651 916

irakurri entzun Ikusi

Martutene
Ramon Saizarbitoria

Martutene. Dadao zenbait aldiz jaurti ondoren, bosta atera da: Julia, Martin, Pilar eta Abaitua dira lau kantoietako puntuak; erdiko, Lynn. Julia itzultzailea da, Martin, idazlea; Pilar eta Abaitua medikuak. Berrito osatzeko (edo desegiteko) prozesuan dauden bi bikote. Horretan, neska amerikar bat agertzen da haien bizitzan; soziologo da, Max Frischen eleberririk bateko protagonistaren izena du. Lynnek ez du nahi, baina aspalditik lokartuak zeuden harreman haien zimenduak astinduko dituzten erreakzioak abiaraziko ditu haiengan: alaitasuna, desira eta bizi berri bati ekiteko poza eta ilusioa.

Sagi jotzen!!!
Poxpola ta Konpainia

Taldearen 4. DVD-a da, eta azken urte t'erdian Euskal Herriko plaza eta antzoki ugari eskainitako emanaldia jasotzen du. Kolorez eta umorez jantzitako ikuskizuna, euskarri erakargarri eta txukunean jasota.

Gazta zati bat
Jon Maia

Ikuslea historiaren protagonista bihurtzen duen dokumentala. Munduan bere gaztagatik ezaguna den Euskal Herriko herri txiki batean abiatzen da istorio hau. Herritar xume batzuk, Europako indarkeriazko azken gatazka politikoa zauri eta banaketa guztien gainera misio handi bati ekingo diote: munduan zer izan erabaki ahal izatea. Abentura horrek Europan albiste nagusi bihurtuko diren bi herrien gertakizun historikoen lekuko zuzenak izatera eramango ditu: Eskozia eta Euskal Herria. Letra txikiz idatzitako historia handi bat. Etorkizunari begira jartzen gaituen aro berriko dokumental bat.

hitzorduetak

Maiatzaren 4tik 18ra bitarteko

Antzerkia

Lotsa gabe. Vaiven. Maiatzak 4, ostirala. Tolosa, Leidor. 20.30. Sarrera doan Kutzak lagunduta.



Antzerki Poltsiko Lehiaketa. Maiatzak 4, ostirala. Aduna, Asvinenea. Pollo Rosa, Bumpsen, Angelo Caduto, Martina Nuatina, Alegria Hermanos eta Xaxa antzerki taldea, parte hartzaileen artean.

Antzerki Poltsiko Lehiaketa. Maiatzak 11, ostirala. Aduna, Asvinenea. Nalua Clown & cia, Compañía la que tú me haces teatro, Karmakros, Hernanikoa, Kittins Productions eta Endik Salazar Fontenla, parte hartzaileen artean.

Dantza

Udaberri-Esbert San Marti dantza taldeen elkar trukea.

Maiatzak 5, larunbata. Tolosa. **Oriko barandilako ballet erakusketa.** Maiatzak 6, igandea. Tolosa, Zerkausiko terraza. 12.00.

Burnia. Aukeran. Maiatzak 11, ostirala. Tolosa, Leidor. 20.30. 10 euro.

Haurrak

Porrotx eta Largabista. Maiatzak 6, igandea. Txindokiko Itzala, Abaltzisketa. 11.00.

Gau berezia Txindokiko Itzala parkean. Maiatzak 18, ostirala. Txindokiko Itzala, Abaltzisketa. 20.00-00.00 bitartean irekita egongo da.

Erakusketa

Herri baterako mapak. Maiatzaren 27a bitartean. Tolosa, Aranburu Jauregia. Herri guztiek kartografiaren bitartez bere nortasun kulturala eta politikoa islatu dute, erakus-



keta honen bitartez azken mila urteetan gure lurraldearen mapa esanguratsuak ikusteko aukera.

Arantza Munita. Hasieraren amaiera. Keramika. Maiatzaren 19a bitartean. Tolosa, Aranburu Jauregia.

Palestinako argazkien erakusketa. Maiatzak 11-20. Tolosa, Kultur Etxea. Biladi elkarteak antolatuta.

Bertso saioa

Bertso emanaldia. Maiatzak 12, larunbata. Tolosa, Leidor. 22.00



Mendi-zaletasuna

XIV orduko mendi ibilaldia-ri buruzko mahai-ingurua.

Maiatzak 7, astelehena. Tolosa, Kultur Etxeko Areto Nagusia. 19.30.

Arroil jaitziera ikasketa. Fago-Arandari. Maiatzak 12 eta 13, larunbata eta igandea. Oargi Mendi Elkarteak antolatuta.

Gernika-Gaztelugatxe mendi irteera. Maiatzak 13, igandea. Alpino Uzturrek antolatuta.

Ikastaroa

Mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaintzeko ikastaroa. Maiatzak 2-15. Bidegoian, balio anitzeko gela. 14.30-17.30. Izaskun Etxarrik eskainia. Diploma jasoko dute parte hartzaileek.



Erromeria

Izaskunen erromeria. Maiatzak 17, osteguna. Bizi-Nahi elkarteak antolatuta.

langile eta langabetuentzat ikastaroak, doanik.

Lanbide eta Hezkuntza Sailak diruz lagundua

Ikastaroaren izena	Hasiera data	Ordu Kopurua
Kalitate erremintak	2012.05.07	24
Orientazioari buruzko jardunaldia: momentu erabakigarriak aukeratzeko uanean	2012.05.08	2
Automobil gidatze ekonomikoari buruzko ikastaroa	2012.05.10	4
Internet zuretzat ere, Sar zaitetz	2012.05.15	4
Lotura eragiketarak (TIG soldaketa)	2012.05.21	40
Europass: Ateak irekiz lanari eta formazioari	2012.05.22	4
Europar		

Gure ikastaro eskaintza ezagutu nahi duzu?

Jo ezazu Tolosaldea GLHBiko bulegora.

Santa Luzia 17 - 20400 Tolosa

Telefonoa: 943.65.11.47 - 615.775.678

idazkaritza@tolosaldea.com
www.tolosaldea.com

info@ikastn.com
www.ikastn.com



TOLOSALDEAN BERRIKO ETXEA
Instituto Superior de FP TOLOSALDEA

Goardiako farmaziak

Ostirala, 4 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Asteazkena, 9 Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa	Astelehena, 14 Olarreaga I. (korreo kalea 2) Tolosa
Larunbata, 5 Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra	Osteguna, 10 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Astearte, 15 Iturrioz, I (Euskal Herria, 3) Ibarra
Igandea, 6 Iturrioz, I (Euskal Herria, 3) Ibarra	Ostirala, 11 Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa	Asteazkena, 16 Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa
Astelehena, 7 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa	Larunbata, 12 Santamaria I. (Nafarroa etorb. 2) Tolosa	Osteguna, 17 Lejeune, Leyre Euskal Herria, 46 Ibarra
Astearte, 8 Bengoetxea E. (Kale Nagusia, 7) Tolosa	Igandea, 13 Morant R. (Zabalarreta, 1) Tolosa	Ostirala, 18 Bronte C. (korreo kalea 20) Tolosa

Telefono interesgarriak

Alegia-Amezketza-Abaltzisketa-Albiztur	Gernikako Arbola,hitzor	943 006 900
Osasun zentroa	943 653 212	Amarozko dispensarioa
Altzo	943 672 637	Asunzion klinika
Medikua	943 675 799	(larrialdia)
Anoeta-Alkiza-Hernalde	943 654 737	San Kosme San Damian
Medikua	943 652 339	geriatrikoa
Baliarrain	943 652 339	Udaltzaingoa
Medikua	943 889 003	Ur eta Argia (Tolargi)
	(asteazk.)	Ur zerbitzuak (aberiak)
Berastegi-Elduain	943 683 361	lurremendi egoitza
Medikua	943 683 361	Larrialdia, Suhiltzaileak
Bidegoian	943 681 134	DYA
Medikua	943 681 134	Gurutze Gorria
Ibarra-Belauntza-Berrobi-Gaztelu-Leaburu	943 672 411	
Osasun etxea	943 672 411	Ertzantza
Ikaztegieta	943 653 329	Tolosa Gasa
Medikua	943 653 329	Lizartza
Irura	943 690 720	Medikua
Osasun zentroa	943 690 720	Orendain
Tolosa	943 650 931	Medikua
Anbulatorioa, larriald.	943 006 800	Orexa
San Esteban, hitzordua		Medikua

KEY-LAN
SARRAILGINTZA

Nafarroa etorbidea, 13-behea
20400 Tolosa
Mobila: 670 417 922
Tel./Faxa: 943 650 313

ARTESANIA
ZUEN TZART
esku esku
arrunta berezi bihurtu!

GERNIKA, 4 TOLOSA
ARTESANIAZUENTZART@EUSKALNET.NET
TEL. 943 650 359

TINDATEGIA

KATZ

Laskorain kalea • TOLOSA
Tel.: 943 652 618

ARALAR KIROLAK

Laskorain, 7 • TOLOSA
Tel.: 943 654 916

Muxutruk

Lana

• Ingelesko eta frantseseko klaseak bakar-ka edo taldeka. Maila desberdinak. Irakasle tituluduna. 664 160268

• Sukaldari edo zerbitzari laguntzaile gisa lan bila nabil. Homologatutako titulua daukat. 671 44 66 15.

• Hortz-protetikoko tituluduna lan bila. 671 44 66 15.

• Klase partikularak Tolosan. L.H. eta D.B.H. Gai guztiak. 645 710 789 (Ana). Banaka edo binaka. Esperientzia

• Emakumea, etxeko lanak egiteko eta pertsona helduak zaintzeko prest. 943 119839

Etxebizitza

• Pisua salgai Errementari kalean, 42 m2 eta erreforma egiteko. 620 129 295

• Ikaztegiatan 100 m2-ko 5. pisua salgai. 3 logela, sukaldea, egongela, komuna eta 2 trastero. Balkoi handi eguzkitsua. 637 914126

• Usurbilgo kaxkoan pisua salgai. 2 logela, sukaldea, sala, komuna eta trasteroa. Dena kanpokaldea, hiru balkoi, eguzkitsua eta bista onekin. 240.405 Euro. Premiazkoa da saltzea!! Tlf: 686969112

• Ibarren, ikasleentzako gela bat alokatzen da. 943 119839

Salgai

• Quads-a salgai. Gasgas K2 250 c.c. 2055 urtekoa, 2 lagunentzako homologatua. Prezio interesgarria. 618 254960. Ariz.

Horoskopoa

Maiatzaren 4tik 18ra arteko aurreikuspena



aries

Martxoak 21-Apirilak 21

Gaitasun fisiko, mental eta espiritualek inguruan duzun errealitate ulertzen lagunduko dizute. Ekintzak aurrera eramateko garaian jakituria eta zuhurtzia izango dira zure aliatu.



taurus

Apirilak 22-Maiatzak 21

Urteko garairik oparoenan murgiltzera zoaz. Pasibotasunetik atera eta zure patua bideratzeko gai izango zara. Arazoak konpontzeko gaitasuna izango duzu, garai bateko kontuak alde batera utziz.



gemini

Maiatzak 22-Ekainak 21

Egunotan zure mugak gaintzeko lanean jardungo zara, indarrez eta borondatez sentituko zara. Lanari dagokionez, aldaketa bat baino gehiago gertatuko da, ardurak handiagotuko dira.



cancer

Ekainak 22-Uztailak 22

Honako hilabetean adiskideek laguntza eskaintzeaz gain, irakaspen bat baino gehiago ahalbidetuko dizute. Gizarte jardueretako zure konpromisoa erakutsiko duzu eta ingurukoek pozez hartuko dute.



leo

Uztailak 23-Abuztuak 22

Ekaina bitartean lan kontuak inoiz baino hobeto garatuko dira. Zure ezkutuko gaitasunak agerian utziko dituzu; horrek sari bat baino gehiago ekarriko du. Komunikaziorako duzun trebeziak baliatuko zara.



virgo

Abuztuak 23-Irailak 22

Oztupoak gaintu eta mugak zeharkatzeko energiak baterik zaudete. Oreka eta segurtasuna ere ez dira falta izango zure egunerokotasunean. Hala ere, agenda ondo antolatzen ikasi beharko zenuke, lehentasunak azpimarratuz.



libra

Irailak 23-Urriak 22

Erronkei gogotsu eta lanari ekinez erantzungo diezu. Garapenaren alde azalduko zara eta hartu beharreko arriskuez kontziente izango zara. Sorrenak ate ezberdinak irekiko dizkizu, bide zaharrek baino emaitza hobek eskuratuko dizkizu.



scorpius

Urriak 23-Azaroak 22

Apustua aukera seguruen alde luzatuko duzu, erritmoa beraz, lasaia baina aurrerakoia izango da. Zuregan jarritako konfiantzari erantzuna emanez irtenbide egokia luzatuko diezu arazo ezberdinei.



sagittarius

Azaroak 23-Abenduak 21

Maiatzean zure bizitza orekan egongo da. Lan erantzukizunak gutxiagotuko dira eta ohiko tamainan mantenduko dira. Proiektu berrietan pentsatzen hasi beharko zara.



capricornius

Abenduak 22-Urtarrilak 20

Zure kasa proiektu berri batean murgiltzeko bazara, garai oparoa dator. Independentzia sentimendua areagotuko da eta zure erabakiak horretara bideratuko dituzu. Ikasleentzat ordea, aldaketa garaia izango da.



aquarius

Urtarrilak 21-Otsailak 20

Egunotan normalean baino baikorkiago zabilta; emaitzetan nabaria da. Helburu berriak ezartzeko egunak dira ondorengoak. Epe luzeira begirako proiektuak ondo aterako dira.



piscis

Otsailak 21-Martxoak 20

Bikoteak buruhauste bat baino gehiago ekarriko ditu. Urduritasuna, suminkortasuna, umore txarra eta eztabaidak gehiegizkoak izango dira. Sentimenduen inguruan nahaste bat baino gehiago sortuko da. Konponbidea zuen esku dago.



“Unibertsitate Masterrak ideia berriztatzaileak garatzeko aukera ematen digu”



Gaizka Bellido. Sistema Txertatuen Unibertsitate Masterreko ikaslea.

Zergatik aukeratu duzu sistema txertatuen masterra?

Ingeniaritza informatikoa ikasi nuen, baina gero, lan munduan, Elektronikarekin harremanetan jarri naiz eta nire lanpostuan, pixkanaka, elektronikarekin zerikusia duten teknologiak ikusi ditut. Bilakaera honen ondorioz, eta informatika eta elektronika elkartzeko asmotan, Sistema Txertatuen Masterra aukeratu nuen.

Zer nabarmenduko zenuke prestakuntza teorikoari buruz?

Niretzat hizlarien bizipenak eta lan munduko esperientziak ezagutzera oso aberasgarria izan da. Gainera, lehen egunetik gure prestakuntza etorkizunera begira izan da, eta edozein arlotan gehiago sakondu eta garatzeko aukera ematen digu.


Eta alde praktikoari buruz?

Batez ere, taldeka egin ditugun lanak. Lan hauek, punta puntako teknologiak erabiltzeko aukera eman digute eta, baita ere, ideia berriztatzaileak garatzeko aukera. Gauza asko ikasteaz gain, alderik interesgarriena izan da enpresa batean proiektu errealean lan egiteko aukera izana.

Nola baloratzen duzu zure esperientzia? Eta Masterra?


Oso positiboa ari da izaten. Oraindik, zatirik onena geratzen da; beraz, gero eta gusturago nago masterrarekin. Betidanik profil informatiko batean mugitu izan naiz, eta master honek ate gehiago irekitzeko aukera eman dit.

www.mondragon.edu/masteresuniversitarios



aldama_tapia
aholkularitza

Foruen Etorbidea.7
20400_TOLOSA Gipuzkoa
Tel.943 650 375
Faxa.943 655 206
gtolesa@aldamatapia.com
www.aldamatapia.com




Komikia: Joseba Antxustegiartxe

TOLosaldeko IKASTOLAK

Konfiantzan, Ikastola

Aurrematrikula
Epea: Maiatzaren 2tik 11ra
Orduetgia: 09:00-13:00 / 15:00-17:30

Tolosako Inmugulada Ikastetxea 943 67 36 29 www.inmuguladetolosa.com	Laskorain Ikastola (Tolosa) 943 69 71 22 www.laskorainikastola.net	Arretako Harri Ikastola 943 65 29 32 www.arretakoharriikastola.net	Irurako Ikastola 943 69 43 74 www.irurakoikastola.net	Jesuaren Bihotza Ikastola (Villabona/Zizurkil) 943 69 23 21 www.jesuarenbihotzaikastola.com	Uzturpe Ikastola (Obarra) 943 67 12 99 www.uzturpe.net
---	--	--	---	---	--



Nafar estatua gogoan



Maiatzeko ekitaldiak Hitzaldiak

Maiatzak 26, larunbata

Herri baterako mapak Mapas para una nación	Jose Mari Esparza	Maiatzak 3, osteguna, 19:30ean, Aranburu jauregiko erakusketa aretoan. Ondoren bisita gidatu bat egingo da. Sarrera: dohainik
Navarra y sus relaciones con Castilla y la Santa Sede	Xosé Estevez Jose Luis Orella Unzue	Maiatzak 10, osteguna, 19:30ean Tolosako Udaletxeko batzar aretoan. Sarrera: dohainik
La Guerra de Navarra. Crónica de la conquista española	Peio Monteano	Maiatzak 17, osteguna, 19:30ean Tolosako Udaletxeko batzar aretoan. Sarrera: dohainik
Nafarroa konkistaren aitzakiaz gure geroari buruzko gogoeta	Mahai ingurua: Floren Aoiz Bixente Serrano Izko Joseba Asiron	Maiatzak 24, osteguna, - 19:30ean Tolosako Udaletxeko batzar aretoan. Sarrera : dohainik

09:00	Gaiteroen dianak Tolosako auzoetan.
10:00	Gaiteroen dianak alde zaharreko kaleetan barna.
11:00	Tolosako Musika Bandaren diana alde zaharrean.
11:30	Harrera Baztango Udalari eta Amaiurko herriari Tolosako Udaltxean. Segidan Plaza Zaharretik buruhaundiak, gaiteroen bandak, Tolosako Musika Banda, dantzariak, udal ordezkariak eta herritarak Nafarroa etorbidera abiatuko dira.
12:00	Nafarroa etorbideko haur parkeari "Amaiur parkea" izena jarriko zaio. Bertan monumentu bat inauguratuko da eta partaide guztiekin omenaldi bat egingo da.
12:30	Alde zaharrean erraldoiak, gaiteroak, dantza taldeak, Bonberenea txaranga, Iparraldeko Kuxkuxtu eta Tolosa Kantari arituko dira.
14:30	Herri bazkaria, Zerkausion. Bukaeran Larrain dantza, Zerkausia kalean.
22:30	Erru Gabe, Kaskezur eta Ufestuek, Baztan aldeko taldeekin, rock kontzertua Plaza Berrian.

Erakusketa

Herri baterako mapak Mapas para una nación	Herri guztiek kartografiaren birtartez beren nortasun kulturala eta politikoa islatu dute. Erakusketa honetan aukera izango duzu azken mila urteetako gure lurraldearen mapa esanguratsuak ikusteko.	Maiatzak 3 - 26 . 17:30 - 20:30, asteartetik larunbatera. Aranburu jauregia Sarrera : dohainik
---	--	--



Maiatzak 25, ostirala
Izanak dirau 1512
Alurr Dantza Taldea
20:30ean, Leidor Antzokian

Istoriok hasiera eta bukaera izan ohi dute... Historiak ez ordea. Orain kondaira dena etorkizunean ere kondaira izango da, eta gogoratzen dugun heinean, ezin amaituko da. Historiak ez du amaierarik, ez behintzat ahazten ez badugu. 500 urtez gorde-ta egon ondoren, kutxa ireki, eta ezagutu dezagun Nafarroako erresuman gertaturikoa. Hautsak harrotu eta ekar dezagun gure memoriara. Kondairak etorkizunean ere iraun dezan. Iraganik gabeko herriak ez baitu etorkizunik. Sua (2008) eta Oinazez (2010) ikuskizunak aurkeztu ondoren, ikuskizun berri batekin dator Alurr Dantza Taldea.

Maiatzak 19 larunbata Mendikuteko (Albiztur) gaztelura bisitaldia

Goizeko 10:00etan Urkizuko auzo elkartearen Mendikuteko gazteluari buruzko 20 minutuko proiektzioa, Juantxo Agirre Mauleon arkeologoaren eskutik. Bertan, Antxon Bandres ikerlari eta arkeologiazalearen omenez koadro bat jarriko da. Gero, oinez, Mendikuteko gaztelura, 45 minutuko ibilaldia. Gazteluan "Nafarroa Bizirik 1512-201" izeneko eragileak plaka bat jarriko du eta omenaldi bat egingo da. Izena emateko: Tolosako Kultur Etxean. Prezioa : dohainik

Maiatzak 20 igandea Amaiurko (Baztan) gaztelura bisitaldia

Goizeko 8,30etan Baztanera, San Frantziskoko autobus geltokitik irtenda. 10etan Amaiurko gaztelu elkartearen kafea, eta Juantxo Agirre Mauleonekin gazteluaren indusketa arkeologikoari buruzko proiektzioa. Gero, gaztelura bisitaldi gidatua, eta bukatzeko, Amaiurko erroten talo dastaketa. Ordu bietan bazkaria Tolosako Mendialde jatetxean. Izena emateko: Tolosako Kultur Etxean. Prezioa (bazkaria barne) : 30 €